

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro a siendo las 18,30 horas, del día 7 de octubre de 2.015 se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres. Concejales D. Miguel Echamendi Hernández, D. Jesús Esteban Juanarena Apestegua, D. Álvaro Villanueva Azcarate, Dña. Sonia Iriarte Gil, D. Joseba Martinez Rey y D. Joaquín María Martínez Choperena, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure.

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIÓN CELEBRADA DIA 8 DE SEPTIEMBRE DE 2015

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad aprobar el acta de sesión celebrada el día 8 de septiembre de 2015.

2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDIA DESDE 4 DE SEPTIEMBRE DE 2015 A 2 DE OCTUBRE DE 2015

Informa el Alcalde Sr. Garralda, del contenido de las resoluciones adoptadas desde el 4 de septiembre a 2 de octubre de 2015. Dándose los concejales por enterados.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey, que solicitando aclaración sobre las licencias de obras y lo que cuesta concederlas, se le informa, por un lado que las licencias las conceden los concejos previo informe preceptivo del Ayuntamiento y a veces entre que se presenta la solicitud al concejo respectivo, se remite al Ayuntamiento para informe y se traslada el expediente a la arquitecta para que esta informe a su vez, pues efectivamente a veces se tarda en informar, si bien generalmente no hay que esperar demasiado.

Respecto a la resolución nº 137, sobre permiso de vacaciones, considera que se debiera tener cuidado con la fecha con la que se firma ya que ha observado que a veces se firma una vez se ha disfrutado dichas vacaciones y no antes. Entendiendo que no debería ser así. En cuanto a la resolución nº 139 sobre los estercoleros pregunta que sucede al respecto, contestando el alcalde Sr. Garralda que se va a mantener una reunión con los adjudicatarios de los mismos para aclarar quienes realmente usan o no los estercoleros que están libres y a quienes se les debe cobrar y desde cuando. Por ello, solicitó a Geserlocal que paralizara los expedientes hasta aclarar toda esta situación.

3.- APROBACION ESTATUTOS AGRUPACION DE SERVICIOS ADMINISTRATIVOS (art. 46 en correlación con art. 48 de la Ley 6/1990)

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que informa a la corporación especialmente a los nuevos corporativos sobre la agrupación de servicios administrativos que se quiere crear, ya que la agrupación que existe actualmente es solo para servirse de un único secretario/a y nada más, por ello siendo las trabajadoras las mismas en los tres Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles, Auritz/Burguete y Erroibar/Valle de Erro, lo lógico es constituir una nueva agrupación que incorpore a todos los trabajadores/as. En

este caso se empieza por las administrativas y la técnico de euskera junto con la Secretaría y posteriormente se verá si interesa o no que se incluyan a los empleados de servicios múltiples.

Toma la palabra la Secretaria que informa que se creó una comisión formada por representantes de los tres ayuntamientos que junto con ella y asesorados también por el Sr. Ramirez de Ganuza del Gobierno de Navarra, elaboraron los estatutos, estuvieron expuestos en los tablones de anuncios un mes, y ahora procede su aprobación previo informe favorable del Gobierno de Navarra por cada uno de los Ayuntamientos.

Debatido el asunto se acuerda por unanimidad, remitir los estatutos al Gobierno de Navarra para informe, aprobar los mismos y proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

4- RESOLUCION 1943/2015 DE LA DIRECTORA GERENTE DEL SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO POR LA QUE SE DEJA SIN EFECTO LA RESOLUCION 233/2012

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa que la convocatoria por la cual las entidades locales podían conseguir subvención para contratar, previo cumplimiento de una serie de requisitos, personas desempleadas se ha dejado sin efecto, si bien les han comunicado que en breve, sacarán una nueva convocatoria que con otras condiciones también dará lugar a que si cumplimos las mismas podamos volver a contratar a desempleados/as.

La Corporación se da por enterada y se queda a la espera de que se publique la nueva convocatoria.

5.- RESOLUCION 1950/2015 DE LA DIRECTORA GERENTE DEL SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO POR LA QUE SE REGULA LA CONCESION DE SUBVENCIONES A EELL PARA LA INSERCIÓN LABORAL DE LA S PERSONAS JOVENES INSCRITAS EN EL SISTEMA DE GARANTIA JUVENIL

Siguiendo con lo anterior, toma la palabra de nuevo el alcalde Sr. Garralda, que informa que si bien la convocatoria regulada por la resolución 233/2012 ha quedado sin efecto, ha salido una segunda convocatoria que da posibilidad de contratar a jóvenes desempleados menores de 30 años y que como requisitos fundamental estén inscritos en el Registro de Garantía Juvenil, el contrato tiene que ser mínimo de 6 meses y al menos de un 50% de jornada. La fecha límite para contratar sería antes del 1 de enero de 2016. Así mismo informa que la presente convocatoria con motivo de las elecciones, cambio de gobierno etc. ha salido un poco tarde pero se espera que la del año 2016 se publique en el primer cuatrimestre del año.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey que plantea el que desde el Ayuntamiento se contrate para los Concejos de manera que muchos trabajos que necesitan los concejos que se hagan y que no tienen a gente ni recursos para ello, se hagan con estas contrataciones. Trabajos como la limpia y mantenimiento de la red de senderos que están sin hacer. El alcalde Sr.

Garralda y los concejales Srs. Echamendi y Villanueva contestan que eso ya se está haciendo desde el Ayuntamiento, los Concejales suelen pedir al Ayuntamiento y este con los mencionados trabajadores hacen los trabajos que se solicitan. El concejal Sr. Martínez Rey contesta que será así pero cree que al menos Aurizberri/Espinal no hace uso de esa posibilidad.

Toma la palabra la concejala Sra. Iriarte que habría que saber cuantas personas del valle que cumplan los requisitos, están interesadas en trabajar para el Ayuntamiento y que coste de enero a junio tendría este tipo de contratación.

Se acuerda por unanimidad:

- Poner un bando con un plazo para saber si hay gente interesada
- Hacer un estudio de los trabajos a realizar
- Hablar con la asesoría laboral para que nos mande el coste que supondría la contratación de una persona por un periodo de seis meses a jornada completa.

6.- APROBACION CONVENIO DE COLABORACIÓN Y GESTION DE LA RADIO IRATI IRRATIA Y NOMBRAMIENTO REPRESENTANTE

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa de la reunión mantenida con Félix Jamar en representación de la Junta de Aezkoa y Luis De Potestad, en representación de Auritz/Burguete para hablar sobre la radio Irati Irratia así como de la propuesta de firmar un convenio para el funcionamiento de la emisora durante el año 2015, convenio que sería suscrito por este Ayuntamiento y resto de Entidades de la zona y la Asociación Irati Elkarte. El contenido de dicho convenio es el siguiente:

“Primero - Objeto

1.1- Constituye el objeto del presente condicionado la regulación de las condiciones de emisión, gestión y utilización por la Asociación Irati Elkarte de las instalaciones de radio local cuyo titular es la Junta General del Valle de Aezkoa, promotora de la emisora desde sus inicios, con una reserva de frecuencia de 107.7.

1.2- Asimismo regula las condiciones de emisión para los municipios de Auritz-Burguete, Luzaide-Valcarlos y Erroibar-Valle de Erro en la misma frecuencia 107.7.

Segundo.- Equipos

2.1- La utilización de equipos abarcará el local habilitado para la emisión y cuantos equipos técnicos radiofónicos –de alta y baja frecuencia- posee la Junta y que figuran en el correspondiente inventario. Del inventario se dará traslado a la Asociación para que pueda realizar las sugerencias que considere oportunas de forma previa a su utilización, y que deberán constar por escrito para valoración por la Junta de Aezkoa.

Los referidos equipos y local se encuentran según informe técnico, en perfectas condiciones de uso.

2.2- La Asociación estará obligada, en el ámbito de su responsabilidad por uso, a dejar los locales y equipos en iguales condiciones de funcionamiento, siendo por tanto de su cuenta los gastos de reparación, mantenimiento o sustitución de los mismos, de conformidad con los siguientes criterios:

a) Alta frecuencia – los gastos de mantenimiento, reparación o sustitución de cualquiera de los equipos de alta frecuencia correspondientes a la radio, serán de cuenta de la Junta General del Valle de Aezkoa, que deberá garantizar al menos el funcionamiento de aquellos que dan cobertura al Valle de Aezkoa. Los gastos de mantenimiento de los aparatos reemisores existentes en el monte Girizu serán de cuenta de los ayuntamientos de Auritz-Burguete y de Luzaide-Valcarlos a partes iguales, y los existentes en el término de Bizkarreta-Gerendiain del ayuntamiento de Erroibar-Valle de Erro.

b) Baja frecuencia – La propiedad de la antena exterior del edificio de la casa del valle corresponde a la Junta General del Valle de Aezkoa, así como su mantenimiento y reparación en caso necesario. Con el resto de los equipos, tanto el mantenimiento como la reparación se realizarán a cargo de la Asociación siempre que su presupuesto individual no exceda de ciento cincuenta euros y en global de seiscientos euros anuales. Por encima de esos límites serán de cuenta de las Entidades firmantes de este Convenio en la proporción que corresponda.

2.3 La Junta General del Valle de Aezkoa suscribirá un seguro de incendios y riesgos complementarios que incluya los equipos de la radio.

Tercero.- Emisión

3.1 - La Asociación garantizará la emisión, en horario de mañana, de al menos dos horas y media de programación diaria, de las que 2 horas serán en euskera y una media en castellano, con un total de al menos 10 horas semanales en euskera y al menos 2.5 horas semanales en castellano.

3.2 - La Asociación se obliga a presentar al menos una programación anual que se remitirá a la Comisión Mixta para su conocimiento y aprobación de forma previa a su puesta en marcha. A los programas que se especifiquen podrán realizar las entidades que subscriben este Convenio cuantas alegaciones considere oportunas y que serán tenidas en cuenta por la Asociación.

La programación incluirá obligatoriamente un espacio diario de información sobre distintos temas locales de los distintos Ayuntamientos y Valles a los que llega la emisión. En cualquier caso será obligatoria la difusión de todos los avisos o comunicados que consideren necesario emitir la Junta o Ayuntamientos de la comarca, que deberán facilitarlos directamente a los responsables de la emisión, a fin de garantizar la utilidad pública de este servicio.

3.3 - La Asociación facilitará el uso de las instalaciones y equipos por personas o grupos no pertenecientes a la misma, que soliciten su uso para emitir programas propios, y siempre que sean presentados y aprobados de

forma previa los contenidos de los temas a tratar por la Comisión. En este punto la Asociación, como gestora de la radio, podrá supervisar y exigir las medidas que sean necesarias para garantizar la utilización adecuada de las instalaciones.

3.4 - En la emisión se observarán las normas de buena vecindad y quedará a salvo la responsabilidad de la Asociación o de sus miembros respecto de las opiniones vertidas por quienes participen en los distintos debates o programas, garantizando en todo caso los derechos de réplica y de rectificación.

Como una radio que debe tener carácter plural y reflejar y dar cabida a las opiniones y sensibilidades de todo tipo de la Sociedad de estos valles, se garantizará el tratamiento aséptico de los temas por parte de los profesionales que trabajan en la radio, en especial evitando el reflejo de opiniones particulares de carácter político, moral etc. siempre a salvo de las que puedan realizar las personas ajenas a la radio que participen en cualquier programa.

Campañas electorales: se actuará con un criterio de proporcionalidad en función de cada convocatoria.

Publicidad: la publicidad emitida no podrá ser superior al 10% el total de horas de programación, y en cualquier caso se dará preferencia a establecimientos de la zona.

Cuarto.- Gastos ordinarios

Los gastos ordinarios correspondientes a luz, calefacción y agua serán de cuenta de la Junta General del Valle de Aezkoa hasta determinar la forma de pago correspondiente. Una vez fijado el sistema de cobro, los gastos correrán a cargo de las entidades firmantes de este Convenio. A cargo de la Asociación serán todos los demás gastos que genere su actividad, como teléfono, tasas e impuestos, etc.

Quinto.- Personal

La Asociación Irati tendrá, respecto del personal que contrate para realizar sus servicios de radiodifusión, la condición legal de empresario, con todos los derechos y obligaciones inherentes a tal condición, y muy especialmente las obligaciones relativas a percepciones salariales, cotización a la Seguridad Social y cumplimiento de la normativa sobre Riesgos Laborales, quedando las entidades que subscriben este Convenio ajenas a las relaciones que afecten a dicho personal con la Asociación.

La Asociación deberá tener al día los justificantes de gastos de personal mediante nóminas y certificados de cotización a la Tesorería General de la Seguridad Social dentro de los plazos legales. Las entidades subscriptoras de este Convenio podrán supervisar esta documentación en el momento en que lo deseen.

Sexto.- Financiación de la radio

- Ingresos

La Junta General del Valle de Aezkoa se compromete a realizar los trámites necesarios para la obtención de cuantas subvenciones establezca el Gobierno de Navarra o puedan obtenerse de fondos europeos dirigidas a financiar emisoras radiofónicas, siempre que puedan ser tramitadas a nombre de la entidad titular de la radio. Las subvenciones que la Junta obtenga por este concepto, se trasladarán a la Asociación Irati Elkarte en el plazo máximo de quince días desde su cobro efectivo. En caso de que las ayudas deban ser tramitadas directamente por la Asociación la Junta apoyará con su personal y medios la solicitud.

- Gastos

La Asociación se compromete a presentar ante la Junta General del Valle de Aezkoa y los ayuntamientos de Erroibar-Valle de Erro, Auritz-Burguete y Luzaide-Valcarlos copia de sus cuentas dentro de los dos meses siguientes a la finalización del ejercicio, así como de los presupuestos anuales en el mes de diciembre del año anterior al de su vigencia. Dentro de los presupuestos se consignará en su caso el déficit previsto, con indicación de todas las entidades a las que se ha solicitado financiación. Una vez examinados por la Junta General del Valle de Aezkoa y los ayuntamientos de Erroibar-Valle de Erro, Auritz-Burguete y Luzaide-Valcarlos estos últimos, se estudiará la inclusión de la partida de subvención que se estime necesaria para el correcto funcionamiento de la radio, en función de sus propios presupuestos.

Para el año 2015, las entidades se comprometen a consignar las siguientes cuantías presupuestarias de sus propios fondos:

<i>Junta General del Valle de Aezkoa,</i>	<i>1.200 €</i>
<i>Ayuntamiento de Erroibar-Valle de Erro,</i>	<i>1.140 €</i>
<i>Ayuntamiento de Auritz-Burguete,</i>	<i>420 €</i>
<i>Ayuntamiento de Luzaide-Valcarlos,</i>	<i>480 €</i>

La Asociación realizará cuantas gestiones sean necesarias para la obtención de mayores recursos propios, así como a implicar a cuantas entidades sea posible en la financiación de la radio.

Septimo.- Comisión Mixta

Se creará una Comisión Mixta paritaria compuesta de once miembros, dos de los cuales serán asignados entre los vocales de la Junta General del Valle de Aezkoa, uno del Ayuntamiento de Erroibar-Valle de Erro, uno del Ayuntamiento de Auritz-Burguete, uno del Ayuntamiento de Luzaide-Valcarlos y los otros cinco serán representantes de la Asociación Irati. Agoitz, al tener su propio convenio firmado con la radio, tendrá voz pero no voto.

La Comisión Mixta se renovará en función de los avatares electorales de las entidades y asociaciones representadas en la misma, y los cambios en su composición se comunicarán al resto de las partes en el momento en que se produzcan.

Corresponderá a la Comisión Mixta realizar el seguimiento y evaluación del condicionado en todos sus aspectos. La Comisión se reunirá al menos una vez por semestre, o cuando el 30% de los miembros lo solicite.

Octavo.- Vigencia

El presente condicionado tendrá vigencia desde su firma y durante el año 2015, finalizando por tanto el día 31 de diciembre del mismo ejercicio.

Para la renovación del presente condicionado, una vez finalizada su vigencia, y para ediciones posteriores, se entenderá automáticamente renovado siempre que alguna de las partes no denuncie algún aspecto de su contenido. En tal caso, la parte denunciante deberá dar a conocer sus motivos al resto de las partes antes del 31 de diciembre del año de vigencia, y corresponderá a la Comisión Mixta de seguimiento establecer las modificaciones a que haya lugar.

El Ayuntamiento del Valle de Erro, se compromete al mantenimiento del poste de Biskarret (antena Meakondo), si bien habrá que comprobar que los daños que pueda sufrir sean cubiertos por el seguro del Ayuntamiento. El alcalde Sr. Garralda informa que el próximo viernes 16 de octubre, va a mantener una reunión con el corredor de seguros que gestiona las pólizas que el Ayuntamiento tiene contratadas y se le planteará, entre otros extremos, este asunto. Así mismo, propone que sea el concejal Sr. Martínez Choperena, el representante del Ayuntamiento en la radio. Pidiéndole a su vez que tengan en cuenta a Zilbeti y a Aintzioa y controlen si tienen cobertura.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey que comenta que habiendo colaborado y trabajado en la radio, le alegra que desde el Ayuntamiento se apueste por este proyecto comunicativo de zona y se participe en el mismo.

Toma la palabra el concejal Sr. Villanueva que pide que la radio esté más al tanto de los acontecimientos de los pueblos, especialmente por la personas mayores, contesta el concejal Sr. Martínez Rey que cree que se está informando bastante bien las cosas que suceden en la zona, pero también es verdad que desde las entidades locales se les podría ayudar a dar más información porque es complicado que una sola persona y con el horario que tiene pueda abarcar todo. En todo caso dentro de la programación, hay un programa propio "Auñamendi" que cuenta todos los acontecimientos locales, primeras noticias etc. Añade la concejala Sra. Iriarte que se suele recoger información también a través de Internet.

Debatido el asunto, se acuerda por unanimidad:

- 1º.- Aprobar el convenio de colaboración anteriormente expuesto
- 2º.- Introducir en el convenio a todas las entidades suscriptoras del mismo.
- 3º.- Nombrar al concejal Jokin Martínez Choperena, representante del Ayuntamiento en la Comisión Mixta de la radio Irati Irratia.

7.- ACUERDO ABONO PAGA EXTRAORDINARIA DICIEMBRE DEL 2012.

El alcalde Sr. Garralda en relación con el abono de la paga extraordinaria de diciembre de 2012, propone a la vista de los acuerdos adoptados en el Gobierno de Navarra, de abono del 25% en febrero de 2015, de otro 25% en diciembre de 2015 y parece ser que del otro 50% en enero de 2016, no

habiéndose en este Ayuntamiento abonado nada de dicha paga, y cumpliendo por otro lado con la Ley de estabilidad presupuestaria, proceder al abono íntegro de dicha paga a los trabajadores/as del Ayuntamiento.

Se acuerda por unanimidad aprobar el pago a los trabajadores/as del Ayuntamiento, de la totalidad de la paga extraordinaria de diciembre de 2012 no abonada en su día.

8.- SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES, ACUERDO DE ADHESION A TARIFA SIMPLIFICADA

El alcalde Sr. Garralda informa de que la FEMP y la Sociedad General de Autores han llegado a un acuerdo para ofrecer tarifas más ventajosas a las entidades locales de hasta 3.000 habitantes en el abono de los derechos de autor, destacando en el mencionado acuerdo, la creación de una tarifa simplificada que incluye un amplio catálogo de actos gratuitos o con precios reducidos o subvencionados, acuerdo al que las entidades locales tienen la posibilidad de adherirse. Si bien revisadas las cantidades anuales que este Ayuntamiento pago por dicho concepto atendiendo a las actuaciones que lleva a cabo a lo largo del año, se observa que ni si quiera así merece la pena adherirse ya que es muy poco lo que se tiene que pagar mucho menos que la tarifa simplificada que se ofrece.

Tras lo cual, la corporación acuerda por unanimidad, no adherirse a dicho acuerdo de tarifa simplificada.

9.- PROYECTO MEMORIA CON TIC'S PRESENTADO POR LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES AUÑAMENDI

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa que desde la Mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi se está promoviendo el proyecto de MEMORIA CON TIC'S, proyecto con el que se pretende recuperar la memoria histórica de los mayores a través de los jóvenes poniendo a su vez en contacto a los unos con los otros. Los jóvenes a participar en el proyecto comprenderían entre edades de 16 y 20, jóvenes que recogerían la memoria de las personas mayores y su entorno y lo publicarían en un blog (página web). El coste del proyecto ascendería a 3.600 euros y el Ayuntamiento pagaría la parte proporcional que le correspondiese.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey, que considera que es un proyecto muy interesante pero entiende que se debería contar con la sociedad educativa. Proponiendo que el Ayuntamiento convoque una reunión con los servicios sociales a fin de conseguir que dicho proyecto funcione lo mejor posible, debiendo por otro lado conseguir un compromiso firme de los jóvenes. Se acuerda por unanimidad, participar en el proyecto MEMORIA CON TIC'S, aportando en su momento la cantidad que en proporción a los 3.600 euros corresponda y convocar a la mancomunidad de servicios sociales Auñamendi a una reunión.

10.- INFORMACION VARIA

El alcalde Sr. Garralda, informa de lo siguiente:

- Se han terminado los trabajos forestales y ya se ha procedido a la tramitación de la documentación para el cobro de la subvención

- A la vista de las necesidades existentes respecto al trabajo de calle, va a prorrogar un mes más el contrato al Sr. Rey Belza y un nuevo contrato de un mes más, ambos hasta el 30 de noviembre, al Sr. Jaroslaw Waldemar.

Toman la palabra los concejales Srs. Martinez Choperena y Martinez Rey que consideran que se debe administrar y organizar mejor el trabajo de la calle, proponiendo reunirse con los concejos antes de final de año para ver que trabajos quieren los concejos que se hagan y con ello estudiar si merece la pena contratar o no a más personal.

- El alcalde Sr. Garralda informa también de que ha solicitado una reunión con el consejero Sr. Ayerdi.

- En cuanto a la Mancomunidad de Quinto Real, informa de que se han vendido todos los puestos de caza y se han adjudicado tres aprovechamientos forestales.

- En cuanto al proyecto de los túneles de Erro, tiene intención de lanzar de nuevo el tema, por lo que va convocar una reunión con los alcaldes de la zona, Aezkoa, Valcarlos, Burguete, Roncesvalles, Esteribar con el fin de sacar este asunto adelante y pedir al Gobierno de Navarra que ejecute dicho proyecto.

- Por ultimo informa del permiso de caza de Odiá que concedió con motivo del destrozo que los jabalís han y están haciendo en dicha zona, a la sociedad de cazadores de Sorogain y que no se ha llevado a efecto. Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Choperena que manifiesta que en estos momentos en esos términos no hay jabalí y por tanto si no los hay, no tiene sentido dicho permiso, en todo caso y si quieren ir la otra sociedad de cazadores que vayan ellos.

- Toma la palabra el concejal Sr. Echamendi, que informa de que Kamira la actual arrendataria del albergue de Sorogain tiene intención de dejar el albergue y cancelar el contrato y solicitan mantener una reunión con el Ayuntamiento el jueves día 15 de octubre a las 17 h. con el Ayuntamiento. Estando todos los concejales/as conformes con mantener dicha reunión se dan por convocados.

11.- RUEGOS Y PREGUNTAS

- Toma la palabra la concejala Sra. Iriarte, que en relación con los senderos, en concreto cuando se sube de Argilegi y se va del collado de Lizarzu, bajas por Zilbeti y subes hacia Adi, pregunta quien tiene competencia. Se contesta que en principio lo que está describiendo es del valle, que hay una ordenanza que lo regula y que aunque es complicado saber, quien si que lo tiene que saber y sino lo sabe es un fallo suyo es el guarda del Seprona.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 20,30 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2015eko urriaren 7an, 18:30ean, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Miguel Echamendi Hernández, Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Álvaro Villanueva Azcarate, Sonia Iriarte Gil, Joseba Martinez Rey eta Joaquín María Martínez Choperena, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.- 2015EKO IRAILAREN 8an EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2015eko irailaren 8an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- 2015eko IRAILAREN 4tik 2015eko URRIAREN 2a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jnk., 2015eko irailaren 4tik urriaren 2a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziak jakinaren gainean gelditu dira.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta obra lizentziei buruz zein horiek emateko behar den denborari buruz galdetu du eta esan zaio, alde batetik obra lizentziak kontzejuek ematen dituztela, Udalaren txosten faboragarria kontuan hartuz, eta batzuetan, eskaera kontzejuan aurkezten denetik, Udalari bidali txostena egin dezan eta txosten osoa arkitektoari pasatzen zaionerako berak txostena egin dezan, zenbaitetan denbora behar dela, hala ere ez dela horrenbestekoa izaten.

Oporren baimena ematen duen 137. zk. duen ebazpenari buruz, uste du datekin kontuz ibili beharko litzatekeela, ikusi baitu zenbaitetan sinatzen direla ebazpena oporrak bukatuak direnean eta ez hartu aurretik. Bere ustez ez luke horrela izan behar. Ongarritegi ebazpenari buruz ere galdetu du, 139. zk.. ez zer gertatzen den eta alkateak, Garralda jnk., erantzun du bilera egin behar dela adjudikatuak dituztenekin, argitzeko libre dauden ongarritegiak nortzuk erabiltzen dituzten eta nori kobratu behar zaion eta noiztik. Hortaz, Geserlocali eskatu zion espedienteak geldiaraztea, egoera zertan den argitu arte.

3.- ADMINISTRAZIO ZERBITZUEN BATASUNENKO ESTATUTUEN ONESPENA (46. art., 6/1990 Legearen 48. artikularekin korrelazioan)

Alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta, gehienbat zinegotzi berriei, osatu nahi den administrazio zerbitzuen batasun berriari buruzko informazioa eman du, dagoena idazkari batez baliatzeko besterik ez baita, eta hiru udaletan, Orreaga, Auritz eta Erroibarren, langile komunak daudenez, logikoa baita batasun berria osatzea langile horiek hartuz. Oraingoan administrariak, euskara teknikaria eta idazkaria sartuko lirateke, eta beranduago ikusiko da komeni den ala ez zerbitzu anitzetako langileak sartzea.

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du batzordea osatu zela hiru udaletako ordezkariekin, bera eta Nafarroako Gobernuko Remirez de Ganuzarekin, estatutuak prestatzeko eta ondoren iragarki oholean ikusgai egon zirela hilabeteko epean; hortaz, orain, udal bakoitzak onetsi behar ditu, Nafarroako Gobernuko txosten faboragarria jaso ondoren.

Gaia eztabaidatu ondoren aho batez erabaki da estatutuak Nafarroako Gobernura igortzea txostena egin dezan eta ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN 1943/2015 EBAZPENA, 233/2012 EBAZPENA BERTAN BEHERA UTZIZ.

Alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du toki entitateek

langabetuak kontratatzeko diru-laguntza lortzeko deialdia bertan behera gelditu dela; hala ere jakinarazi digute laster beste deialdi bat aterako dutela, beste baldintza batzuk eskatuz, eta haren bidez langabetuak kontratatu ahalko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da eta deialdi berria atera arte itxarotea erabaki da.

5.- 1950/2015 EBAZPENA, IRAILAREN 30EKOA, NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEAK EMANA, NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK EZARTZEN DITUENA, GAZTEEN BERMEAREN SISTEMAN INSKRIBATURIKO GAZTE LANGABEAK LAN MUNDUAN TXERTATZEA ERRAZTEKO ASMOZ.

Alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du 233/2012 ebazpenak arautzen duen deialdia bertan behera gelditu bada ere, bigarren deialdia atera dela eta haren bidez 30 urte baino gutxiagoko langabe gazteak kontratatzeko, beti ere Gazteen Bermearen Sistemari inskribatuak baldin badaude eta kontratua gutxienez 6 hilabeterako eta lanaldi osoaren %50 adinakoa baldin bada.

Kontratazioa 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen egin behar da. Modu berean jakinarazi du deialdia berandu atera dela gobernu aldaketarengatik baina 2016koa lehenengo lau hilekoan argitaratzea espero dela.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta proposatu du Udalak kontratuak egitea kontzejuek egin ordez, kontzejuetan egin beharreko lanak egin ditzaten, kontzejuek ez baitute jenderik ezta baliabiderik kontratazioak egiteko. Adibidez

bide-sarea garbitu eta mantentzeko lanak egin gabe daude. Alkateak, Garralda jnk., eta Echamendi eta Villanueva zinegotziek diote hori egiten dela gaur egun, kontzejuek eskatzen diotela Udalari lan batzuk egitea eta Udalak kontratatuak dituen langabeek egiten dituzte. Martinez Rey jnk. erantzun du hori horrela bada ere gutxienez Aurizberriko kontzejua ez dela aukera horretaz baliatzen. Iriarte zinegotziak hitza hartu du eta esan du jakin beharko litzatekeela baldintzak betetzen dituzten zenbat bizilagun daude interesatuta lan egiteko eta kontratazioaren kostua urtariletik ekainera zenbatekoa izango litzatekeen. Aho batez erabaki da:

- *Bandoa ateratzea interesa izan dezakeen gazterik dagoen jakiteko.*
- *Egin behar diren lanen azterketa egitea.*
- *Lan-aholkularitza zerbitzua egiten duen enpresarekin mintzatzea jakiteko pertsona bat sei hilabeterako eta lanaldi osorako zenbateko kostua duen.*

6.- IRATI IRRATIKO KUDEAKETARAKO ELKARLANERAKO HITZARMENA ETA ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera izan zuela Aezkoako Batzarre Nagusiko buruarekin, Felix Jamar, eta Aurizko Udalaren alkatearekin, Luis de Potestad, Iratí Irratiaz mintzatu eta haren funtzionamendurako, 2015erako, hitzarmena sinatzeko proposamena aztertzeko; hitzarmen hori Udal honek eta eskualdeko beste entitateek zein Iratí elkarteak sinatuko lukete. Hona hemen hitzarmenaren edukia:

“Lehena.- Xedea.

1.1. Hitzarmenaren xedea da Aezkoako Batzarre Nagusiarenak diren tokiko irratia instalazioak Irtati Elkartek emititu, kudeatu eta erabiltzeko baldintzak arautzea; Aezkoako Batzarre Nagusia da irratia hasieratik sustatu duena eta 107.7 frekuentziaren erreserba duena.

1.2- Modu berean, Auritz, Luzaide eta Erroibarren 107.7 frekuentzian emititzeko baldintzak arautzen ditu

Bigarrena.- Tresneria.

2.1.- Erabiliko den tresneriaren barne sartzen dira emititzeko prestatu den tokia eta Batzarre Nagusiak duen goi- eta behe- maiztasuneko irratiko tresneria, dagokion inbentarioan sartua. Elkarteari inbentarioaren berri emango zaio, tresneria erabili baino lehen egokiak deritzon iradokizunak egin ditzan, beti ere idatziz eginak, Aezkoako Batzarre Nagusiak baloratu ahal izateko.

Tresneria hori eta tokia egoera onean daude, txosten teknikoaren arabera.

2.2-Elkartea behartuta dago, erabiltzeagatik erantzukizuna duen neurrian, tokia eta tresneria erabiltzeko baldintza egokietan uztera, hortaz, bere kargura izango dira horiek guztiak konpontzeko, mantentzeko edo ordezkatzeko gastuak, honako irizpideen arabera:

a) Goi-maiztasuna- goi-maiztasuneko tresneria guztien mantentze, konpontze edo ordezkatzeko gastuak Aezkoako Batzarre Nagusiaren kargura izango dira, Aezkoari estaldura ematen diotenen funtzionamendua gutxienez bermatuz. Irratiaren emisioa birbidaltzeko Girizu mendian jarri den tresneriaren mantentze gastuak Auritz eta Luzaideko Udalen kargura izango dira, erdibana banatuak, eta Bizkarretako dermioan dauden Erroibarko Udalaren kargura.

b) Behe-maiztasuna- Ibarreko etxeko kanpoaldeko antena Aezkoako Batzarre Nagusiarena da, eta bere ardura izango da hura mantendu eta, behar denean, konpontzea. Gainontzeko tresneriaren mantentze eta konpontze lanak Elkartearen ardura izango dira, beti ere banakako aurrekontua ehun eta berrogeita hamar euro baino handiago ez bada, eta guztiena urtero sei ehun euro baino gehiagokoa ez bada. Aurrekontua aipatutakoa baino altuagoa denean, Hitzarmen hau sinatuko duten Toki Entitateen kargura izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

2.3- Aezkoako Batzarre Nagusiak sute eta arrisku osagarrien aseguria kontratatuko du, irratiko tresneria sartuz.

Hirugarrena.- Irrati-emanaldiak

3.1- Elkartek bermatuko du goizez gutxienez bi ordu eta erdiko saioa egunero emango dela, horietatik 2 ordu euskaraz eta ordu erdia gaztelaniaz, astero gutxienez 10 ordu euskaraz eta 2,5 gaztelaniaz osotara.

3.2- Elkartea behartuta dago urteroko programazio bat gutxienez aurkeztera Batzorde Mistoari, martxan jarri aurretik jakin eta onets dezan. Hitzarmen hau sinatzen duten entitateek programazioari egokiak deritzoten alegazio guztiak egin ahalko dizkiote eta Elkartek kontuan hartuko ditu.

Programazioan Irratia entzun daitekeen Udal zein ibarrekin zerikusia duten gaien buruzko saioa sartuko da egunero. Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da Batzarre Nagusiak zein Udalek eman nahi dituzten abisu edo jakinarazpenak ematea, eta horien berri zuzenean igorriko diete irradi emanaldien arduradunei, zerbitzuaren onura publikoa bermatzeko.

3.3- Elkarteko kide ez direnek irradi saioak emateko eskaera egiten badute elkartek toki eta tresneria erabiltzen utziko die, beti ere saioaren edukia aldeztu aurretik aurkeztu badute eta Batzordeak onartu badu.

Elkarteak, irratiko kudeatzailea den neurrian, instalazioen erabilera egokia bermatze aldera, horiek modu egokian erabiltzen direla berrikusi eta hartu beharreko neurriak betearaziko ditu.

3.4- Irratiko saioetan hezibide oneko arauak errespetatuko dira eta Elkarteak edo bere kideek ez dute eztabaidetan edo programetan parte hartzen dutenek emandako iritziekiko erantzukizunik izango; beti ere erantzuteko edo zuzentzeko eskubideak bermatuko dira.

Irratiak izaera anitza izanen du eta inguruko herrietako bizilagunen iritzi eta sentsibilitate guztien isla izanen da; hortaz, irratiko langileek gaiak modu aseptikoan landuko dituzte, batez ere izaera politiko edo moralezko iritziak islatzea saihestuz, saioetan parte hartzen ahal duten irratiz kanpokoek emandakoak izan ezik.

Hauteskunde kanpainak: deialdi bakoitzaren araberrako proportzionaltasun irizpideari jarraituko zaio.

Publizitatea: publizitateari emandako tarteak ezingo da izan programazioaren ordu guztien %10 baino gehiago, eta eskualdeko establezimenduek lehentasuna izanen dute.

Laugarrena.- Ohiko gastuak.

Argi, berokuntza eta urari dagozkien ohiko gastuak Aezkoako Batzarre Nagusiak ordainduko ditu, ordaintzeko modu berria ezarri arte. Sistema berria ezartzen denean, Hitzarmen hau sinatu duten entitateen artean ordainduko dituzte. Elkarteak gainerako gastuak ordainduko ditu, besteak beste, telefonoa, zergak eta tasak, eta abar.

Bosgarrena.- Langileak

Irati Elkarteak irratian lan egiteko kontratatuko dituen langileekiko enpresari izaera izanen du, hari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak barne, batez ere ordainsariei, Gizarte Segurantzaren kotizazioari eta Lan Arriskuei buruzko arautegia betetzeko derrigortasunari dagozkionak, Hitzarmen hau sinatzen duten entitateak langileek Elkartearekin dituzten lan harremanetik kanpo geldituz.

Elkarteak langileen gastuen frogagiriak egunean izango ditu, nominen eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari egindako kotizazioen ziurtagirien bidez, legeak ezarritako epeetan. Hitzarmen hau

sinatzen duten entitateek dokumentazio hori berrikusi ahaliko dute nahi duten unean.

Seigarrena.- Irratiaren finantzazioa.

- Diru-sarrerak

Aezkoako Batzarre Nagusiak Nafarroako Gobernuak emango dituen diru-laguntzak edo Europako funtsetik irratia finantzatzeko eskuratu daitezkeen laguntzak lortzeko egin beharreko izapideak egiteko konpromisoa hartzen du, beti ere irratia titularrak bideratu ahal dituen kasuetan. Batzarre Nagusiak modu horretan lortutako diru-laguntzak Irati Elkarteari emango zaizkio kobratzen direnetik hamabost eguneko epean gehienez ere. Diru-laguntzak eskatzeko izapideak Elkarteak egin beharko balitu, Batzarre Nagusiak lagunduko dio langileak eta baliabideak eskainiz.

- Gastuak:

Elkarteak konpromisoa hartzen du Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Erroibar, Auritz eta Luzaideko Udalei bere kontuen kopia igortzeko urtea bukatu eta ondoko bi hilabeteko epean, eta aurrekontuak aurreko urteko abenduan. Aurrekontuen barnean aurreikusitako defizita agertuko da, finantzazioa eskatu zaien entitate guztiak aipatuz. Aezkoako Batzarre Nagusiak eta Erroibar, Auritz eta Luzaideko Udalek Elkarteak aurkeztutako aurrekontua aztertuko dute eta irratia funtzionamendu egokirako behar den dirua bere aurrekontuen arabera zehaztuko dute.

2015. urterako entitateek kopuru hauek ordaintzeko konpromisoa hartu dute:

<i>Aezkoako Batzarre Nagusia,</i>	<i>1.200 €</i>
<i>Erroibarko Udala</i>	<i>1.140 €</i>
<i>Aurizko Udala</i>	<i>420 €</i>
<i>Luzaideko Udala</i>	<i>480 €</i>

Elkarteak berezko baliabide gehiago lortzeko beharrezko gestioak eginen ditu eta ahal duen entitate guztiak inplikatuak ditu irratia finantzazioan parte har dezaten.

Zazpigarrena.- Batzorde Misto

Batzorde Misto paritarioa eratuko da, hamaika kidez osatua: Aezkoako Batzarre Nagusiko bi ordezkari, Erroibarko Udaleko ordezkari bat, Aurizko Udaleko ordezkari bat, Luzaideko Udaleko ordezkari bat eta Irati Elkarteko bost ordezkari. Agoizko Udalak bere aldetik hitzarmena sinatu zuen irratiarekin eta ahotsa izango du baina botorik ez.

Batzorde Mistoa tokiko hauteskundeen ondoren izendatutako entitateen ordezkarien arabera eta elkarteetan gertatzen diren aldaketan arabera berrituko da, eta aldaketak ematen direnean hura osatzen duten erakunde eta elkarteei jakinaraziko zaie.

Batzorde Mistoak baldintza hauen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko du. Batzordea sei hilabetean behin gutxienez bilduko da edo kideen %30ak eskatuta.

Zortzigarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek indarra hartuko du sinatzen denetik 2015. urtean zehar, hortaz, urte horretako abenduaren 31 arte.

Indarraldia bukatuta, automatikoki berrituko da aldeetako batek salatu ezean. Salaketa gertatuz gero, salatariak bere arrazoiak jakinari beharko dizkie gainontzeko kideei urte horretako abenduaren 31 baino lehen, eta Batzorde Mistoak egin beharreko aldaketak ezarri beharko ditu.

Erroibarko Udalak Bizkarretero postea mantentzeko konpromisoa hartu du (Meakondoko antena) eta izaten ahal dituen kalteak Udalaren aseguruak estaliko dituela begiratu beharko da. Alkateak, Garralda jnk., esan du heldu den ostiralean, urriaren 16an, bilera egin behar duela Udalak kontratatuak dituen aseguru-polizen artekariarekin eta beste batzuen artean, gai honetaz galdetuko dio. Modu berean proposatu du Martinez Choperena j. izatea Udalaren ordezkaria irratian eta eskatu dio kontuan hartzea Zilbeti eta Aintzinoa, eta estaldurarik duten aztertzea.

Martinez Rey jnk., hitza hartu du eta esan du irratian lan egin eta parte hartu duenez, asko pozten dela Udalak proiektuaren alde egiten duela ikusita. Villanueva jnk. eskatu dio irratia herrietan gertatzen denaren gaineko informazio gehiago ematea, gehienbat adinekoengatik, eta Martinez Rey zinegotziak erantzun dio uste duela eskualdean gertatzen denaren gaineko informazio txukuna ematen dela baina uste duela toki entitateek informazio gehiago eman ahalko luketela, langile bakarrak duen ordutegia kontuan hartuz zaila delako informazio guztia eskuratzea. Hala ere, programazioaren barne badago "Añaamendi" izeneko programa eta horretan eskualdeko gertakarien gaineko informazioa ematen dela, lehenengo berriak, eta abar. Iriarte ak. dio Internet bidez ere informazioa lortu ohi dela.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aho batez:

- 1.- Aipatutako lankidetzak hitzarmena onartzea.
- 2.- Hitzarmena sinatuko duten entitate guztiak sartzea.
- 3.- Irati Irratiko Batzorde Mistoan parte hartuko duen Udal ordezkaria Jokin Martinez Choperena zinegotzia izatea.

Alkateak, Garralda jnk., 2012ko abenduko aparteko ordainsariari dagokionez, Nafarroako Gobernuak %25a 2015eko otsailean ordaindu zuela ikusita eta %25a 2015eko abenduan ordaintzeko asmoa duela eta, dirudienez, %50a 2016eko urtarrilean, eta Udal honek oraindik ez duenez ordainsari horretatik deus ere ez ordaindu, eta aurrekontuen egonkortasunaren Legea betetzeko, Udalaren langileei ordainsari hura bere osotasunean ordaintzea proposatu du.

Aho batez erabaki da Udalaren langileei 2012ko abenduaren aparteko ordainsari osoa ordaintzea.

8.- EGILEEN ELKARTE OROKORRA, TARIFA SINPLIFIKATUAREKIN BAT EGITEKO ERABAKIA

Alkateak, Garralda jnk., jakinarazi du EUPFk eta Egileen Elkarte Orokorrak adostu dutela 3.000 biztanle baino gutxiago duten toki entitateei tarifa hobeak eskaintzea egile eskubideak ordaintzean; horren bidez tarifa sinplifikatua sortu da eta horren barne doako ekitaldiak edo prezio murriztuak edo diruz lagundutako ekitaldiak sartzen dira, eta erabaki horrekin toki entitateek bat egiteko aukera dute. Horiek horrela Udalak antolatzen dituen ekitaldiengatik urtero ordaintzen dituen egile eskubideen kopuruak berrikusita, argi dago ez duela merezi tarifa horri atxikitzea, tarifa hori baino gutxiago ordaintzen baita.

Hortaz, udalbatzak erabaki du aho batez tarifa murriztuarekin bat ez egitea.

9.- AUÑAMENDI GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEAK AURKEZTU DUEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN BIDEZKO PROIEKTUA

Alkateak, Garralda jnk., jakinarazi du Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak IKTen bidezko MEMORIA izeneko proiektua sustatzen ari dela eta haren bidez helduen memoria historikoa berreskuratu nahi da gazteek egindako lan baten bidez. Proiektuan parte hartuko luketen gazteak 16 eta 20 urte bitartekoak izango lirateke, adinekoen eta bere inguruaren gaineko memoria jaso eta blog batean argitaratuz. Proiektuak 3.600 euroko aurrekontua dauka eta Udalak dagokion zatia ordaindu beharko luke.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du proiektua oso interesgarria iruditzen zaiola eta uste duela hezitzaileak kontuan hartu behar direla. Hartara, proposatu du Udalak bilera deitzea gizarte zerbitzuekin, proiektua ahal bezain ongi aurrera eramateko eta, bertze aldetik, gazteen konpromiso irmoa lortu beharko litzatekeela.

Aho batez erabaki da IKTen bidezko MEMORIA proiektuan parte hartzea eta 3.600 euroko aurrekontutik Udalari dagokion zatia ordainduz eta Auñamendi Mankomunitateari bilera bat egiteko eskatzea.

10.- BESTERIK

Alkateak, Garralda jnk., informazio hau eman du:

- Baso lanak bukatu dira eta diru-laguntza jasotzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu da.
- Kanpo lana egiteko beharrak ikusita, hilabete batez luzatuko zaio kontratua Rey Belza jaunari eta hilabeteko kontratu berria egingo zaio Jaroslaw Waldemar jaunari, biak azaroaren 30a arte.
Martinez Choperena eta Martinez Rey zinegotziek hitza hartu dute eta esan dute kanpo lana hobeki antolatu behar dela eta urtea bukatu baino lehen kontzejuekin bilerak egitea proposatu dute, zer lanak egitea nahi dute eta, horren arabera, langile gehiago kontratatu behar den edo ez aztertzeko.

- Alkateak, Garralda jnk., jakinarazi du bilera eskatu diola Ayerdi kontseilariari.
- Kintoko Mankomunitateari dagokionez, jakinarazi du usategi guztiak enkantean eman direla eta hiru oihan aprobetxamendu adjudikatu direla.
- Erroko tunelen proiektuari dagokionez, gaiari berriko heltzeko asmoa dauka eta, hortaz, bilera batera deituko ditu Aezkoa, Luzaide, Auritz, Orreaga eta Esteribarko alkateak, proiektua aurrera atera eta Nafarroako Gobernuari proiektua gauzatzea eskatzeko.
- Azkenik jakinarazi du baimena eman ziola Sorogain ehiztari elkarteari Odian basurdeak ehizatzen, inguru hori hondatu dutelako baina ez direla ehizatzen joan, Martinez Choperena jnk., hitza hartu du eta esan du gaur egun ez dagoela basurderik hor eta, hortaz, baimen horrek ez duela zentzurik, eta, beste ehiztari elkarteak joan nahi badu joan daitezela.
- Echamendi zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du Kamirak, Sorogaingo aterpea errentan duen enpresak, aterpea utzi eta kontratua bertan behera uzteko asmoa duela eta bilera egin nahi dutela Udalarekin urriaren 15ean, ostegunean, 17:00etan. Zinegotzi guztiak bilera egiteko ados daudenez deituak gelditzen dira.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Iriarte ak. hitza hartu du eta bideei buruz galdetu du, zehazkiago Argilegitik

Lizartzuko leporaino igo eta gero Zilbeti aldera jaitsi eta Adira igotzeko bidea noren eskumenekoa den. Erantzun zaio berak dioen hori ibarrarena dela eta badagoela hori arautzen duen ordenantza, eta, nahiz eta zaila izan eskumena norena den jakitea, Sepronako zaindariak jakin beharko lukeela eta ez badaki bere errua izango litzateke.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, bilkurari bukaera eman zaio 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.